

IRAGARKIA

“Herri barruko bide eta kaleetan trafikoa, erabilpenak eta segurtasuna arautzeko udal ordenantzari” hasierako onarpena emateko erabakia, abuztuaren 9ko 151 zk.ko “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu zen. Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen, hain zuzen ere, Toki Gobernu modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 legeak aldatu duen legearen, 70. artikuluan ezarritako jendaurreko epea amaitu ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu eta, Udalbatza Osoak 2006ko uztailaren 27ko bilkuran onartutakoa betetzeko, behin-betiko onartutzat deklaratzeko da ordenantza hori eta bere testu osoa argitaratzen da.

Berangon, 2006ko urriaren 6an. Alkatea, Miren Dobaran Urrutia.

HERRI BARRUKO BIDE ETA KALEETAN TRAFIKOA, ERABILPENAK ETA SEGURTASUNA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Berangoko Udalak, bere eskumen arautzailearen barruan eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua den martxoaren biko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, abenduaren 19ko 19/2001 Legeak aldatua, lege honen 7. artikuluan ezartzen diren eskuduntzak garatu nahi ditu, hots, zentzu zabal batean hartuta, udalaren jabetzako herri barruko bide eta kaleetako trafikoa zuzentzea eta kontrolatzea, bide eta kale hauek udaltzainen bidez zaintzea eta bide eta kale hauetako arau urratzeak salatu eta, berariaz beste administrazio baten eskuduntza ez denean, zigortzea.

Udal Ordenantza honen xedea, I Tituluan jasotzen den bezala, Berangoko udal barrutiko herri barruko bide eta kale publikoetako eta edozeinek nahiz lagun kopuru zehaztugabe batek erabiltzeko bideetako trafikoa, zirkulazioa, segurtasuna eta erabilpenak arautzea da.

II Titulua trafiko arautzeari eta zirkulazioari buruzkoa da, eta printzipio orokorrak eta ibilgailu, oinezko eta animalien zirkulazio arauak jasotzen ditu. Titulu honen barruan nabarmentzeko modukoak dira oinezkoentzako gunek, hots, udalerriko mugikortasuna hobetzen duten espazioak eta bertan gizabanakoei ibilgailuei baino garrantzi handiagoa ematen zaienak; udalerraren garapen iraunkorrekiko eta natura-ingurunea babesteko ahalegin eta kezkari erantzuteko kutsadura maila murriztea garraio publikoaren erabilera bultzatzea eta herritarren eskura natura-ingurunean txertatzen diren espazioak bilatzea lortzen da oinezkoen guneekin.

Era berean, bide publikoetan oztopoak jartzea, seinaleztapena, trafikoan eragina duten lanak egitea, geralekuak eta aparkalekuak arautzen dira titulu honetan bertan.

III Tituluak bide publikoen erabilerak arautzen ditu eta bertan karga eta deskargaren erregimena, jende eta ondasunen garraioa eta debekaturiko erabilerak jasotzen dira. IV Tituluari dagokionez, berriz, zuhertasunezko neurriak garatzen ditu, hau da, trafikoa nahasteko kausa larriak daudenean, ibilgailuak bide publikoetatik kentzea justifikatzeko nahikoak direnak, ibilgailuak bide publikotik garabiarekin kentzea.

V Tituluak zehapen-prozedura aplikagarria arautzen du; bertan zigortzeko eskuduntza, ardurak, salaketetako betebeharrak, espedienteen izapideak egitea, jakinarazpenak, zigorrak eta hauen kalifikazioa, helegiteak, arau urratzeen ezaugarriak eta isunen ordainketa ematen dira aditzera, besteak beste.

Azkeneko Eranskinean arau-urratze eta zigorren zerrenda jasotzen da, egindako arau-urratzea, egindako arau-urratzearen kalifikazioa, urratutako araua eta ezarritako isunaren zenbatekoa adieraziz.

I. TITULUA

ATARIKOAK

1. artikulua

Ordenantza hau eman da, Tokiko Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluko b) eta II) ataletan eta Tokiko Araubideari buruz indarrean dauden Xedapenen Testu Berregina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilean udalei trafiko eta zirkulazioan aitortzen zaien eskumenaren haritik, eta Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko oinarri-arauen uztailaren 25eko 18/1989 Legearen, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onetsitako Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen artikuluen testua erreformatzeko abenduaren 19ko 19/2001 Legearen, eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen artikuluen testua aplikatu eta garatzeko Zirkulazioko Arautegi Orokorra onetsi zuen azaroaren 21eko 1.428/2003 Errege Dekretuaren aplikazioaren ondorioz, udalerrietan kaleetako trafikoaren, erabilpenen eta segurtasunaren oraingo egoerara ezinbestean egokitu beharra baitago.

I. KAPITULUA

XEDEA

2. artikulua

Ordenantza honek Berangoko udalerrian herri barruko, erabilpen erkidekoak diren eta mugatu gabeko jende kopuru batek erabiltzen dituen kaleetan trafikoa, zirkulazioa, segurtasuna eta erabilpenak araupetu nahi ditu.

II. KAPITULUA

APLIKAZIO-EREMUA

3. artikulua

Ordenantza honetako arauak Berangoko udalerrri osoan aplikatuko dira eta ondoren aipatzen diren toki guztietan eta jende guztiak bete beharko ditu:

1. Errepide konbentzionaletan, bide lasterretan, edozein ibilgailu gelditu edo aparkatzeko eremuetan, plaza, kale edo herri barruko bideetan, jabeago publikoko bideetan eta, oro har, jendeak erabiltzeko bide publiko zein pribatu guztietan. Edozeinek erabiltzekoak ez diren eta jabeek zein mendekoek soilik erabiltzeko diren bide, lurzoru, garaje, auto-gordetegi edo antzeko beste lokal batzuetan ez dira arau hauek aplikatuko.
2. Lehenengo paragrafoan jasotako erabiltzaileak, gidariak, titularrak, jabeak, ibilgailu barrukoak nahiz oinezkoak, bakarrik nahiz taldeka joan.
3. Aurreko paragrafo horretan sartu ez arren arau horiekin zerikusia duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.
4. Bide publikoan libreki zirkulatzea eragozten duten, zirkulazioa murriztu nahiz ezabatzen duten obrak egiten dituzten kontratista, erakunde zein partikularrak.
5. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren bideetan dauden edozein eratako ibilgailuak, aparkatuta nahiz mugimenduan egon.
6. Animaliak, bakarka nahiz taldean joan.

II TITULUA

TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA

UDALAREN ESKUMENA

4. artikulua

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legeak honako eskumen hauek aitortzen dizkie udalerriei:

1. Udal mugarteko kale eta bide publiko guztietan trafikoa antolatzea eta kontrolatzea, eta baita kaleak udaltzainen bidez zaintzea, kale horietan egiten diren arau-hausteak salatzea eta zigortzea ere, zigorra beste administrazio bati berariaz esleitu ez bazaio.
2. Kaleen erabilpena xedapen orokorren bidez araupetzea, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna eta oinezkoek kaleak erabiltzea bateragarriak izan daitezen.

3. Zirkulazioa oztopatu edo eragozten dutenean edo zirkulaziorako arriskutsuak direnean ibilgailuak herri barruko eta herrien arteko bide eta kaleetatik eramatea eta gordailuan uztea, arautegian hala zehazten den kasuetan eta baldintzetan.
4. Kirol lehiaketetarako baimena ematea ibilbide osoa udalerrriarenak diren kale eta bideetan zehar doanean.
5. Zaintzaren eta bideko zirkulazioaren segurtasunaren eskumena beraiena den errepide publikoetatik zirkulatzen ari diren gidariei alkoholaren sorgogarrrien, psikotropikoen nahiz estimulatzaileen eraginez sortutako intoxikazio-maila neurtzeko probak egitea.
6. Beharrezkoa denean herri barruko bideak eta kaleak ixtea.

II. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

5. artikulua

Berangoko udalak trafikoa antolatzeko egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu, ibilgailu zein oinezko batzuen zein guztien zirkulazio baldintzak, aldi batez zein betiko aldaraziz, murriztuz edo debekatuz, eta aparkatzea, zamalanak eta salgaien zein pertsonen garraioa araupetuz.

6. artikulua

Konponketarik, seinaleztapenik, mantentze lanik edo garbiketa lanik egin behar zaion bide publikoa mugatu egin beharko da, eta horretarako lizentziaren titularrak bere kontura seinale egokiak jarriko ditu; erasandako erabiltzaileei lanen berri iragarriko zaie gutxienez 24 ordu lehenago, premiazko obrak direnean izan ezik; argibideetan lana noiz hasiko den ere zehaztuko da.

7. artikulua

Udaleko Zerbitzu Teknikoak Udaltzaingoarekin koordinazio estuan arituko dira, bide publikoetan eragina izateko bezain handiak diren eta gutxienez hamabost egunez luzatuko diren obretan eta baita laburrago jo arren erabiltzaileei eragozpen handia sortuko dieten obretan ere, eman beharreko argibideak emateko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko.

8. artikulua

Udaltzaingoak udalerriko alderen batean zirkulazioaren antolamendua aldi batez aldarazi eta pertsona nahiz ibilgailuak toki jakin batzuetara sartzea debekatu ahal izango

du, eta horretarako zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna babestuko dituzten seinale egokiak jarri nahiz baliogabetu eta behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

9. artikulua

Udaltzainen aginduak indarrean dauden bestelako edozein seinale edo arautegiren gainera egongo dira eta berehala beteko beharko dira.

III. KAPITULUA

ZIRKULAZIOAN NOLA JOKATU BEHAR DEN

I. ATALA

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA

10. artikulua

Arau orokor modura, eta ikuspen urriko bihurtuetan eta malda-gainaldetan bereziki ,Ordenantza honen xede diren bide guztietan ibilgailuak eskuinaldetik joango dira, galtzadaren ertzetik ahalik eta gertuen eta alboan segurtasunez gurutzatzeko behar beste toki utziz.

11. artikulua

Obretatik datozelako gurpiletatik lokatz ugari bota dezaketen ibilgailuei ez zaie zirkulatzeko utziko, eta pneumatikoak eta galtzada garbitzeko neurri egokiak hartuko dira.

12. artikulua

1. Motozikletek, quadek eta ziklomotorrek ezin izango dute, inondik inola, espaloi, nasa edo paseoetan ibili, Ordenantza honetan oinezkoen guneetarako ezarritakoari kalterik gabe.
2. Animaliek tiratutako ibilgailuek, baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg baino gehiagokoa ez duten ibilgailu bereziek, bizikletek, ziklomotorrek, elbarrien ibilgailuek nahiz txirrindulari lasterketen jarraipena egiten duten ibilgailuek eskuineko bazterbidetik joan beharko dute halako ibilgailuentzat bereziki gordetako biderik edo bide-zatirik ez dagoenetan bazterbide hori bertatik zirkulatzeko modukoa eta nahikoa bada; bestela, galtzadaren zatirik ahalik eta txikiena okupatuz ibili beharko dute. Baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg baino gehiagokoa ez duten ibilgailuek larrialdi batengatik abiadura oso mantsoan ibili behar badute, eta horrekin zirkulazioan nahasmendu larria eragingo badute, eskuineko bazterbidetik joan beharko dute. Jaitsiera luze eta bihurtuetan, segurtasunak horretarako aukera

ematen duenetan, txirrindulariek bazterbidea utzi ahal izango dute eta behar duten galtzadaren eskuinaldeko zatian ibili.

3. Aurreko puntuan aipatutako ibilgailuek, bizikletek izan ezik, debekatua izango dute binaka elkarren ondoan ibiltzea; bizikletak binakako lerrotan ibili ahal izango dira, bazterbidetik ahalik eta gertuen, eta ikuspena txarra den zatietan banakako ilaran jarrita.

13. artikulua

Bizikleta, quad eta ziklomotorretako gidariek indarrean dauden zirkulazio arauak eta seinaleak errespetatuko eta zorrozki beteko dituzte eta agintaritzaren agenteek esandako bete beharko dute gainerako ibilgailuetako gidariek egin behar duten bezala.

14. artikulua

Motor-gidari bat baino gehiago taldean doazenean ilaran joango dira, segurtasun tarte gordez eta abiada edo trebezia lehiaketarik egin gabe. Elkarren ondoan joatea debekatuta daukate, nolana ere.

15. artikulua

Debekatuta dago laguna eramateko homologatuta ez dauden bizikleta edo ziklomotorretan lagunak nahiz animaliak eramatea, eta bizikleta nahiz ziklomotorretan animaliak garraiatzea; debekatuta dago gidariaren eta ibilgailuaren aginteen artean inor jartzea ere. Debekatuta dago, halaber, ikustea eragozten duten, ibilgailuaren oreka galarazten duten edo ibilgailua gidatzea oztopatzen duten zamak garraiatzea.

16. artikulua

Udal Administrazioak bizikletentzat soilik diren bideak ezarri ahal izango ditu eta behar bezala seinaleztatuko dira bide hauek. Debekatuta dago bide horietatik automobilekin, motozikletekin, ziklomotorrekin eta bizikletak ez diren edozein ibilgailurekin ibiltzea, eta halakorik aparkatzea.

Oinezkoek horretarako jarritako oinezkoentzako pasabideak erabiliko dituzte bide horiek gurutzatzeko.

Arau orokor modura, bizikletentzako bideek ez dituzte oinezkoen eremuak edo parke publikoak zeharkatuko. Alabaina, aurkakoa ezarriko balitz, bizikletek bidearen ingurumarietara moldatu beharko lukete eta bidegorriak oinezkoen gunek edo parke publikoak zeharkatzen dituztenean arreta bereziarekin ibili beharko litzateke.

Txirrindulariek ahal dela beraientzat atonduta dauden bideak erabiliko dituzte beren ibilbidean.

II. ATALA

OINEZKOAK

17. artikulua

Oinezkoak beraientzat diren espaloi, paseo eta nasetatik ibili ahal izango dute. Galtzadatik ere ibili ahal izango dira, behar bezalako arretaz eta zirkulazioa oztopatu gabe, honako kasu hauetan:

1. Espalotik joatekotan gainerako oinezkoei traba egin diezaieketen gauza handiak daramatzatenean.
2. Oinezkoentzako espaloirik edo eremu gorderik ez dagoenean, galtzadaren erdigunetik ahalik eta urrutien.

18. artikulua

Galtzada gurutzatu behar dutenean, ahalik eta prestuen egingo dute eta honako neurriak hartuko dituzte:

1. Semaforoek araututako pasabideetan beraientzako seinaleak bidea gurutzatzeko baimena ematen dienean soilik.
2. Agintaritzaren agenteek araututako pasabideetan haien esanak betez beti, eta gurutzatzeko baimena izan baino lehen galtzadan sartu gabe.
3. 50 metroko erradioan oinezkoentzako pasabiderik ez dagoenean izkinetatik gurutzatuko dute, bidearen ardatzarekiko elkarzut. Horrelakoetan, gurutzatzen hasi baino lehen ibilgailuen zirkulaziori oztoporik ez zaiola egingo egiaztatu beharko da; ibilgailuei pasatzen utzi beharko zaie.
4. Ezin izango da patinekin, gurpil-oholekin edo antzeko tramankuluekin ez galtzadan ez espaloietan ibili; halakoak udalak horretarako jarritako tokietan soilik ibili ahal izango da. Toki batetik bestera eskutan eramango dira, eta inoiz ere ez lurrean pirritatuz.

III. ATALA

ANIMALIAK

19. artikulua

Debekatuta dago Ordenantza honen mende dauden bideetan lor-abereak, zamariak, zelako abereak nahiz abelburuak, bakarka zein taldetan edo aldraka ibiltzea. Debekatuta dago, halaber, abereek tiratutako ibilgailuak ibiltzea. Udaleko agintaritzak gainerako erabiltzaileentzako arriskutsuak ez diren toki jakin batzuetan eta ibilgailu gutxiago ibiltzen diren ordezkotako bideetan mugitzeko baimena eman ahal izango die, baita halako animaliek parte hartzen duten ekitaldiak ospatzeko baimena ere.

20. artikulua

Bide publikoetan txakurren bat solte dabilela ikusi eta, lepokoan identifikazioa izan edo ez, txakurraren zaintzaileari, ez dagoelako, lotuta eraman behar duela ohartarazteko modurik ez dagoenean, txakurrak bide publikotik kendu eta txakurtegira eramateko eskatuko zaio dagokion udal sailari edo udalak itunduta duen enpresari. Zerbitzu horren kostua aberearen legezko jabeak ordainduko du.

IV ATALA

OINEZKOENTZAKO GUNEAK

21. artikulua

Oinezkoentzako guneak oinezkoak ibiltzeko gordetako bide zatiak dira; trafikoa dabilen bideak baino gorago egon daitezke edo beste edozein modutara bereiztuta, baita trafikoari mugak jartzen dizkieten hesi, pibot edo bestelakoekin ere. Oinezkoentzako guneetan ibilgailuak ibiltzea guztiz edo zati batean debekatu du udal administrazioak eta baita ibilgailu guztiek edo batzuek aparkatzea ere.

Hamabi urtetik gorakoek udalak halakoetarako beren beregi atondu dituen tokietan izan ezik edozein kirol egitea, baloiarekin jolasean ibiltzea eta bizikletak, patinak, gurpil-oholak eta antzekoak erabiltzea ere debekatu da.

Oinezkoentzako guneetan irratiz kontrolatutako edozein eratako ibilgailuak eta gasolinazko motorrez bultzatutako patin, gurpil-ohol edo antzerakoak erabiltzea ere debekatu da, halaber.

22. artikulua

Oinezkoentzako guneek sarreran dagokien seinalea edukiko dute, ibilgailuak sartu eta bertan ibiltzea eragozteko elementu mugikorrak erabili edo ez.

23. artikulua

Oinezkoentzako guneetan, baita espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezko ugari dabilen tokietan ere, ibilgailuek, pasatzeko baimena badute, abiadura oinezkoen pausu normalera mugatu beharko dute eta baita gelditu ere, horrela behar izanez gero; inor ez harrapatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte. Oinezkoentzako guneetan abiadura ez da inoiz orduko 10 km-tik gorakoa izango.

24. artikulua

Ibilgailuak oinezkoentzako guneetan aparkatzeko edo hauetatik ibiltzeko debekua horrelakoa izan daiteke:

1. Beren perimetroak mugatzen dituen bide guztiak har ditzake, edo batzuk soilik.
2. Finkoa izan daiteke edo asteko egun batzuetara nahiz urteko garai batzuetara mugatu.
3. Etengabea izan daiteke nahiz ezarritako arautegi baten arabera arautu.

25. artikulua

Honako ibilgailu hauei ez zaie gune hauetan aparkatzeko edo zirkulatzeko inolako mugarik jarriko:

1. Polizia, anbulantzia, osasun larrialdi, suhiltzaile edo salbamendu zerbitzuetako ibilgailuei, ez eta zerbitzu publikoak betetzeko baimendutakoei ere.
2. Gaixoak edo minusbaliotasunen bat dutenak garraiatzen dituzten ibilgailuei.
3. Baimena daukan eta gune horretan dagoen aparkaleku publiko zein pribatutik datozen edo halakoetara doazen ibilgailuei.
4. Horretarako baimendutako tokietan eta orduetan zamalanetan ari diren ibilgailu garraiatzaileei.
5. Auzokoak direlako, denda dutelako edo antzeko arrazoiengatik berariaz baimena eman zaienei.

V. ATALA

OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN

26. artikulua

Bide eta kale publikoetan edukiontzia, mahaitxoak, kioskoak, kanpoko barrak, salmahaiak zein bestelako edozein oztopo jarri aurretik udalaren baimena behar da; interesatuek baimenean gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko babes neurriei, seinaleztapenari zein argiztapenari buruz esaten zaiena bete egin beharko dute.

27. artikulua

Honako egoeraren bat gertatzen denean udal-agintariek jarrita dauden oztopoak kenduko dituzte ofizioz eta gastuak interesatuek ordainduko dituzte:

1. Horren ardura duen funtzionarioak beharrezko baimena eskatu eta erakusten ez zaionean.
2. Baimenean jarritako baldintzak betetzen ez direnean.
3. Baimena emanarazi zuten arrazoi edo zioak desagertu direnean.
4. Baimenaren epea iraungi denean.

28. artikulua

Udal agintariak segurtasun zein higiene edo sanitatzeko arrazoiengatik beharrezkoa dela frogatuta eta arrazoituta dagoenean, eta baita obrak egiteko, ikuskizunak emateko, baimendutako segizioak pasatzeko eta antzekoak egiteko ere, oztupoak kendu egingo dituzte, baina gastuak udalaren gain hartuta.

29. artikulua

Aparkaleku gordetzat hartuko dira edukiontziak, mahaitxoak, kioskoak, kanpoko barrak, salmahaiak eta gainerako hiri osagaiak jartzeko gordetzen diren lekuak galtzadan badaude

VI. ATALA

SEINALEZTAPENA

30. artikulua

Ezingo da zirkulazio seinalerik jarri, aurretiaz udalaren baimenik eduki ezean.

31. artikulua

Seinale informatzaileak jartzeko baimena udal agintarien iritziz interes publikokoak direnean soilik emango da.

32. artikulua

Ezin izango da zirkulazio seinaleetan nahiz seinaleen ondoan inolako publizitate-iragarkirik ez eta bestelakorik ere jarri.

33. artikulua

Debekatuta dago semaforo eta trafiko-seinale bertikalen gainean edo ondoan erabiltzaileei ondo ikustea eragotzi edo mugatzeko moduan edo haien arreta erakartzeko eran zuhaitzak, landareak, markesinak, instalazioak eta edozein publizitate mota jartzea.

34. artikulua

Udalak behar bezala baimendu ez diren edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten seinaleak kendu egingo ditu ofizioz, eta eragindako gastuak jarri dituenak nahiz jartzearen onura duenak ordainduko ditu.

Udaltzaingoak ezarri den antolamendua aldi batez aldatu ahal izango du segurtasuna, ordena publikoa nahiz zirkulazioaren arintasuna bermatzeko, pertsona edo

ibilgailu ugari biltzen diren tokietan eta baita larrialdietan ere. Horretarako komenigarriak diren seinale guztiak jarri ahal izango dituzte eta baita prebentzio neurri egokiak hartu ere.

IV. KAPITULUA

OBRAK

I. ATALA

ARAU OROKORRAK

35. artikulua

Ordenantza honen xede diren bide publikoetan libreki zirkulatu ahal izatea eragozten duten obrak egiten dituzten kontratistek edo partikularrek, obra horiek seinaleztatu eta balizatu beharko dituzte obrak iraun bitartean, Ordenantza honen hurrengo paragrafoetako seinaleztapen elementuei buruzko araudia beteaz.

36. artikulua

Bide publikoan obrak egin behar dituztenek, eta behar den udal baimena jaso ondoren, Berangoko udaltzaingoaren egoitzan obretan jarriko dituzten seinaleen ezaugarri eta edukiei buruzko baldintza-orka aurkeztu beharko dute; lanei ekin ahal izateko ezinbestekoa izango da udaltzaingoak bere proposamena biltzen duen txostena egin ondoren alkatetzak onespenez ebatzea.

37. artikulua

Obra finkoa ez denean, hau da, kale edo bide berean zehar luzatzen denean, obra zuzendariak lan-gune bakoitzerako egokia eta aproposa derizkion aldaketak egin ahal izango dizkio hasierako egitasmoari; aldaketak egiten badira berehala jakinarazi beharko dizkio udaltzaingoari, aldaketak gainbegira ditzan.

38. artikulua

Ezin izango da Ordenantza xede diren bideetan pertsonak eta ibilgailuak libreki ibiltzea oztopatuko duen jarduerarik hasi beharrezko seinaleak, balizamendua eta, behar denetan, babesa jarri ez badira.

39. artikulua

Seinale, balizamendu edo defentsa horiek jarri dituenak aldatuko ditu, eta baita kendu ere, jarrarazi dituen oztopoa aldatu edo desagertu bezain laster, une hori edozein delarik ere, eta bereziki gaua edo jaieguna bada.

40. artikulua

Seinaleak, balizamendua edo defentsa erosi, jarri, mantendu eta kentzeko gastuak obrak egiten dituen kontratistak, partikularrak zein entitateak ordainduko ditu.

41. artikulua

Obrak dirauen bitartean eta behin obra amaituta dagoela, obra entregatu baino lehen, garbiketa orokorra egingo da eta soberan edo botatzeko dauden materialak, tresnak, hondarrak, eta berme-aldian mantentzea behar ez diren obra osagarriak, instalazioak, biltegiak eta eraikuntzak kendu egingo dira. Garbiketa bidearen jabari, zorreko eta eragin guneetara hedatuko da, eta baita aldi batez okupatu diren lurzoruetara ere; den-denak obra hasi baino lehen zeuden bezala edo ingurukoen pare utziko dira.

42. artikulua

Ezin izango dira indarrean dagoen Zirkulazio Arautegi Orokorrean ageri diren seinaleen berdinak ez direnak erabili. Hitzak dauzkaten eta galtzadatik kanpo dauden seinaleak Zirkulazioko Arautegi Orokorrean finkatutakoak ez bezalakoak izan daitezke, seinaleak kokatu nahi diren tokiko ingurumari zehaztutara egokitzea errazteko.

43. artikulua

Gidari arduratsuek behar diren neurriak hartu edo maniobrak egin ahal izatea ziurtatuko duten seinale ahalik eta gutxien erabiliko dira; gidariaren arreta ez desbideratzeko oso agerikoak direlako beharrezkoak ez diren seinaleak jartzea saihestuko da hauek jarri gabe gidaria mezua argi eta garbi ulertzeko gauza denean. Hobe da, oro har, trafikoa arautzeko seinale osagarriak sartzeko, arrisku seinale bera behin eta berriz errepikatzea baino, seinale osagarriek informazio gehiago ematen baitute.

44. artikulua

Seinale edo balizen arteko distantziak ez du arau orokorrekarekin zerikusirik, eta kasu bakoitzean seinaleek adierazten dituzten egin beharreko maniobrak arian-arian interpretatzeko irizpideari jarraituko zaio.

II. ATALA

SEINALEAK

45. artikulua

Galtzadaren zati bat hartzea eskatzen duen obra orotako seinaleztapenak elementu hauek izango ditu gutxienez:

- a) a) «Obrak» arrisku seinalea.
- b) b) Erabili ezin den errepide zatia aurrez aurre mugatuko duen hesia.

46. artikulua

«Obrak» plaka hesitik gutxienez 10 metrora eta gehienez 25 metrora egongo da, zatiko ikuspenaren eta trafikoaren izatezko abiadaren arabera, eta seinalearen eta hesiaren artean jarri behar diren seinale osagarrien kopuruaren arabera.

47. artikulua

Obra bidegurutze batetik gertu hasten denean, seinaleztapenaren distantzia galtzadaren egoerara egokituko da, obrarantz doazenek obraren berri argi eta garbi izan dezaten.

48. artikulua

Gutxieneko seinaleak argitzeko, osatzeko edo indartzeko ingurumarien arabera honako elementu hauek gehitu ahal izango zaizkie:

- a) Abiada pixkana mugatuz joatea, gehienez 30 km/h-ko tarteeekin, errepide horrek berez ezarrita daukanetik hasi eta, behar izanez gero, erabat gelditzeraino.
- b) Abiadura-mugaren lehenengo seinalea «Obrak» arrisku-seinalearen aurretik jar daiteke.
- c) Erasandako gunean zer zirkulazio araubide dagoen adierazten duen oharra.
- d) Ibilgailuak saihasbide posibleetara bideratzea.
- e) Hartutako gunea luzeran mugatzea.

49. artikulua

Abiadura-muga ez da segurtasun baldintza normalen barruan kasuan kasuko ingurumarietara eskatzen dutenaren azpitik egongo.

50. artikulua

Hartuta dagoen bideko txandakako norabide bakarreko zatian nahikoa ikusten ez bada edo, aldi batez bada ere, trafiko dentsitate handiko bideetan bada, trafikoa

langileek arautu beharko dute une eta toki horretan ongi ikusten diren eskuzko seinaleez hornituta, edo bestela enpresak jarritako semaforo alternatiboen bitartez.

51. artikulua

Norabide bereko gutxienez bi bide dituen errepidean bide bat hartuta dagoenean desbideratzea adierazteko R-400 plaka bat jarriko da 45 graduko angeluarekin.

52. artikulua

Arriskuak edo oztopoak alboetatik mugatzeko, konoak, balikonoak, hesiak edo tartekako seinale-zintak erabili ahal izango dira; debekatuta dago, ordea, obrako elementuak, hala nola zintarriak, hondar piloak, bidoiak eta abar erabiltzea.

53. artikulua

Seinale guztiak gauez ondo ikusteko modukoak izango dira; islatzaileak izan beharko dute, beraz, eta gauez argitsua den balizamendua edukiko dute.

54. artikulua

Hesiek argi gorri egokiak izango dituzte muturretan, trafikoaren martxaren norabidean. Galtzadaren erdian daudenean eta zirkulazioa bi norakoetan doanean, berriz, argi horiak edukiko dituzte bi muturretan.

V. KAPITULUA

GELDITZEA ETA APARKATZEA

I. ATALA

GELDIALDIEN ARAUBIDEA

55. artikulua

Ibilgailu bat pertsonak jasotzeko edo uzteko, gauzak zamatzeko edo deskargatzeko nahiz bidean 2 minutuz azpitik gelditzea eragiten duen beste egintza oro da geldialdia; ez da geldialdia izango bideko beharrek eraginda halabeharrez edo une batez gelditzea.

56. artikulua

Geldialdietan gidariak ezin izango du ibilgailua bertan behera utzi, eta inoiz inon horrelakorik egingo balu, begien bistan eduki beharko du horrela eskatzen diotenean edo ingurumariak beharrezkoa egiten dutenean lehenbailehen handik kendu ahal izateko.

57. artikulua

Bestelakoa dioen seinalerik izan ezean espaloirik gabeko kaleetan gelditzerakoan metro bateko tartea utzi beharko da ibilgailua eta gertuen dagoen fatxadaren artean.

58. artikulua

Geldialdia galtzadan bertan egitean, ibilgailua ertzetik ahalik eta gertuen utziko da.

59 artikulua

Geraldia egin nahi den lekutik 40 metrora edo hurbilago geldialdia egiteko prestatua eta seinaleztatua dagoen eremuren bat dagoenean, ezin izango da geldialdirik egin. Premia handiko arrazoiak tarteko bigarren ilaran gelditu behar bada, zirkulazioa ez oztopatzeko moduko tokietan egingo da geldialdia eta gidaria ez da ibilgailutik irtengo.

60. artikulua

Auto-taxiak beraientzat gordetako tokietan eta behar den moduan aparkatuko dira; toki horiek Berangoko Udalak berak ezarriko ditu zerbitzu horretarako ematen dituen lizentzietan. Gainerakoan ordenantza honetako geldialdien araubidea beteko dute.

61. artikulua

Autobusak, bai hiri barrukoak edo hiriartekoak eta bai hautazko zerbitzuetakoak, udal agintariak berariaz seinalatu edo xedatutako geralekuetan baizik ezin izango dira gelditu bidaiariak hartzeko eta uzteko. Ikasleak eramateko eskola garraioko zerbitzua antolatuta daukaten ikastegietako zuzendariei Udal agintaritzak berak eskatuko die proposatutako ibilbideen berri emateko; ibilbide hauek gainbegiratu eta onartu ondoren, udalak ibilbide bakoitzaren barruan egokien iruditzen zaizkion geltokiak finkatuko ditu eta debekatuta egongo da geltoki horietatik kanpora ikasleak hartzea eta uztea.

62. artikulua

Irakaskuntza esparrua udal barrutian duten gidarien eskoletako titularrei ere beren jarduera bere garaian zehaztuko diren gunee, ordutegi eta egunetan egitea eskatu ahal izango zaie, halaber.

63. artikulua

Debekatuta dago, guztiz, toki eta kasu hauetan gelditzea:

:

- a) Bidegurutzetan, ezta trafiko dentsitate handiaren ondorioz bada ere.
- b) Hala seinalatutako edo arautegiaz debekatutako tokietan, baimendutako ibilgailuak nahiz larrialdi edo segurtasun zerbitzuak direnean edo gaixo nahiz ezgaituak hartu eta uzteko denean izan ezik.
- c) Lehenetsi diren bideetan eta trafiko dentsitate handikoak direnetan. Bestelakoa adierazten duten seinaleak dauzkatenak salbuetsiko dira.
- d) Herri barruko bideetan, zirkulazioa larriki oztopatzen denean.
- e) Bigarren ilaran.
- f) Oinezkoen babesguneetan, irlatxoetan, erdibitzaileetan, babes-lekuetan eta trafikoa bideratzeko gainerako elementuetan.
- g) Dagokien ibia behar bezala seinalatuta daukaten eraikinetako ibilgailuen sarrera-irteera bideetan
Espaloietako igarobideen zabalera altuera beheratua duen espaloi zatiko zintarriaren metro linealen bidez zehaztuko da. Espaloiko zintarriaren altuera beheratua ez dagoen kasuetan igarobidearen zabalera eraikinetako edo orubeko sarrera-tartearen luzera osoa izango da.
Igarobideak jartzeko, mantentzeko, eraberritzeko eta kentzeko gastuak eta aparkalekua gordetzekoak eskatzailearen kontura izango dira.
- h) Espaloietan, paseoetan, lorategietan eta oinezkoentzako pasagune diren beste lekuetan.
- i) Trafiko seinaleak ikustea eragozten den tokietan.
- j) Bihurguneetan, malda-gainaldeetan eta beste ibilgailuek arrisku larriarik sortu gabe geldirik dagoen ibilgailuari aurrea hartzeko nahikoa ikusten ez duten tokietan.
- k) Zerbitzu publikoentzat, erakunde ofizialentzat eta larrialdi zerbitzuentzat direlako behar bezala seinalatutako geltokietan.
- l) Katgoria jakin bateko ibilgailuak ibiltzeko gordetako erreietan.
- m) Behar bezala seinalatutako eraikinetako sarreretan, jende ugari biltzen duten ikuskariak edo jendaurreko ekitaldiak egiten diren eraikinetako sarreretan.
- n) Zamalanetarako guneeetan, dagokien ordutegian.
- o) Minusbaliatuek soilik erabiltzeko horrela seinalatutako guneeetan.

II. ATALA

APARKEMENDUEN ARAUBIDEA

64 artikulua

Aparkatzea ibilgailua bi minututik gora gelditzea da, betiere zirkulazioak horrela behartuta ez bada.

65 artikulua

Ilaran aparkatzean ibilgailuak bata bestearen atzean jartzen dira.

66. artikulua

Baterian aparkatzean ibilgailuak alboz albo edo bata bestearen saihetsean kokatzen dira.

67. artikulua

Ibilgailuak ilaran aparkatu beharko dira kontrako seinalerik izan ezean, zoruan markatutako perimetroaren barruan eta espaloitik ahalik eta gertuen. Espaloirik gabeko kaleetan, berriz, 56. artikulua agindutakoa bete beharko da.

68. artikulua

Bestelako seinalerik izan ezean, bai zirkulazio-zentzu bikoitzeko bideetan eta bai zirkulazio-zentzu bakarreko bideetan aparkatzea debekatua izango da.

69. artikulua

Hala ilaran nola baterian aparkatzen denean, aparkatu den ibilgailuaren eta gertuen duen ibilgailuaren artean pertsona bat normal pasatzeko moduko tartea utziko da.

70. artikulua

Edonola ere, gidariek ibilgailua berez ez mugitzeko moduan aparkatuko dute, horretarako behar diren babes neurriak hartuta.

71. artikulua

Debekatuta dago honako kasuetan ibilgailuak aparkatzea:

- a) Arautegiek edo seinaleek debekatzen duten tokietan.
- b) Gelditzea debekatuta dagoen tokietan.
- c) Automobilak toki berean jarraian 15 egun baino gehiago.

- d) Autokarabanak toki berean jarraian 7 egun baino gehiago.
- e) Ibilgailuak salgai dagoela dioen kartel edo iragarkiak baditu toki berean jarraian 5 egun baino gehiago.
- f) Noranzkoaren kontrako norabidean.
- g) Autobus edo taxi geltokietan.

72. artikulua

Ordenantza honek erregelatutako bideetan ezin izango da, berariaz baimendutako lekuetan izan ezik, motordun ibilgailutik bereiztutako inolako atoirik edo karabanarik aparkatu eta ezta autobusik, traktorarik, obretako makineriarik, karabanarik, autokarabanarik edo baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailurik ere.

73. artikulua

Bizikletak, quadak eta motozikletak ezin izango dira oinezkoentzako gune modura seinalatuta dauden guneetan aparkatu, ez eta irlatxo, espaloi, lorategi, paseo, plaza edo ibilgailuentzat itxita dagoen beste edozein tokitan ere.

74. artikulua

Ingurumariak horrela gomendatzen dutenean, halako ibilgailuei horretarako seinalatutako oinezkoentzako gune jakinetan aparkatzeko baimena emango zaie. Aparkatzeko toki hauetara oinez sartuko dira, ibilgailuan eseri gabe, eta motorra itzalita daramatela; motorraren indarra espaloia gainditzeko soilik erabili ahal izango dute.

75. artikulua

Ziklomotorrak eta motozikletak galtzadan baterian aparkatuko dira, gehienez 1,5 metroko zabalera hartuz.

III. TITULUA

BIDE PUBLIKOEN ERABILPENA

I. KAPITULUA

ZAMALANAK. EDUKIONTZIAK

76. artikulua

Udal agintariek zamalanetarako gordetako tokiak zehaztu eta seinaleztatuko dituzte. Gune horiek adierazten dituzten seinaleetan zamalanak egin ahal izateko

aparkatzea zein egunetan eta ze ordu bitartean mugatuko den adieraziko da. Alabaina, zamalanak baimendutako gune eta ordutegietatik kanpo egin ahal izango dira, auzokoei eta bideak erabiltzen dituzten gainerakoei trabarik egiten ez bazaie.

77. artikulua

Salgaien zamalanak tokiaren ezaugarriei eta ingurumariiei adituz kasuan kasu seinaleetan finkatzen diren ordutegietan egingo dira bide publikoetan.

78. artikulua

Ibilgailuak zamalanetarako gordeta dauzkaten tokietan zamalanak egiteko behar duten denboran egongo dira soilik; ezin izango dute toki horietan hamar minutu baino gehiagoz egon zamalanetan ari ez badira.

79. artikulua

Zamalanetarako erreserbatutako lekuetan eta orduetan teknikoki salgaien garraiorako diseinatuta dauden eta halako ezaugarri teknikorik eduki ez arren agintari eskudunak luzatutako garraio txartela aurreko haizetakoan ikusteko moduan jarrita duten ibilgailuak soilik aparkatu ahal izango dira.

80. artikulua

Garraioan aritu ez arren, asistentzia medikoan, minusbaliatuak garraiatzen, epaitegietako zein zaintza, segurtasun eta bestelako zerbitzu publikoetako kontuetan aritzen diren ibilgailuei ere toki horiek erabiltzen utziko zaie, udal agintariak behar bezala emandako lizentzia agerian badute. Ibilgailu horiek zamalanetarako gordetako guneetan aparkatu ahal izango dute, baina gainerako erabiltzaileei ahalik eta trabarik gutxien eginez.

81. artikulua

Herri barruan salgaiak banatzen aritzen diren ibilgailu industrialek ezingo dute 12 tona baino gehiagoko baimendutako gehieneko pisua izan.

82. artikulua

Materialak biltzeko edo hondakinak jasotzeko edukiontziak jartzeko udalaren baimena behar da eta aparkatzeko debekurik edo ordutegi mugaturik ez duten tokietan soilik jarri ahal izango dira, ondo aparkatutako ibilgailuen kanpoko lerroa gainditu gabe. Edukiontziak horrela ez jartzeko arrazoiak daudenean nahitaezkoak izango dira Udal Bulego Teknikoaren baimena eta Udaltzaingoaren aldeko txostena.

83. artikulua

Edukiontzia hauek lona batez estalita egongo dira bai lanorduetatik kanpo aparkatuta daudenean eta bai garraiatzen direnean ere, inork ezer sar ez dezan eta barruan dauden materialak ikus ez daitezen eta haizeak eta gizalegerik gabeko pertsonen bide publikoan barreia ez ditzaten.

84. artikulua

Salgaiak espaloitik gertuen dagoen aldetik atera eta sartuko dira ibilgailutik; zamalanak arintzeko bitartekoak erabiliko dira eta beste ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzen saiatu.

85. artikulua

Zamalanetan mugitzen ari diren salgai, material eta gauzak ez dira lurlean utziko, eraikinetik ibilgailura edo ibilgailutik eraikinera zuzenean garraiatuko dira, alferrikako zarata eta trabak saihesteko neurriak hartuz.

86. artikulua

Oin berriko eraikuntzak egiterakoan, obra-lizentzia eskatzen dutenek obraren barruan zamalanetarako aparkalekua daukatela frogatu beharko dute. Halakorik posible den kasuetan, obrak dauden lekuetan aparkatzeko gunek gordeko dira, baina, horretarako, eskatzaileak txosten tekniko baten bidez azaldu beharko du obra barruan aparkatzeko gunea gordetzeko ezintasuna.

87. artikulua

Aipatutako erabilpenerako zein beste edozein erabilpenetarako tokia gordetzen den kasuetan, dagokion Ordenantzak halakoetarako ezarri dituen tasak ordaindu beharko dira.

II. KAPITULUA

HAUTAZKO GARRAIOA

88. artikulua

Gidariarena zenbatuta bederatzi toki baino gehiago dituzten ibilgailuekin irteera edota helmuga udalerrian dituen garraio zerbitzuak emateko udalaren baimena beharko da.

89. artikulua

Baimen hori zerbitzuaren titular diren pertsona fisiko zein juridikoek eska dezake, eta indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioa, proposatzen den ibilbidea eta erabili nahi diren geltokiak aurkeztu beharko dira.

90. artikulua

Jatorrizko baimenari aldaketak egin nahi bazaizkio lizentzia berria eskatu beharko da.

91. artikulua

Udalerrri barruko geldialdiei eta aparkamenduei dagokienez, bidaiarien lineako garraioak bete behar dituen baldintza berberak bete beharko dituzte.

III. KAPITULUA

BIDE PUBLIKOAN EGITEA DEBEKATUTA DAUDEN ERABILPENAK

92. artikulua

Bide eta kale publikoetan ez da ez jokorik ez jolasik egiten utziko handik dabilzanentzat nahiz egiten dituztenentzat arriskutsuak edo gogaikarriak izan badaitezke.

93. artikulua

Oinezko nahiz ibilgailuen joan-etorrietarako oztopo izan daitezkeen jende pilaketak eragin ditzaketen ospakizun, ekintza edo deialdi orok udalaren baimena beharko du. Hala eta guztiz ere, tokian bertan dauden agintaritzaren agenteek uste badute eragindako kalteak edo eragin litezkeenak baimena ematerakoan espero zitezkeenak baino askoz ere handiagoak direla, eta horrek jendea edo ondasunak kalteak izateko arriskuan jartzen dituela, unean berean ezeztatu ahal izango dute baimena eta ekitaldia bertan behera utzi.

94. artikulua

Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko jendearen ilarak ordenatuta eta gehienez binaka jarrita moldatuko dira, eraikinen fatxaden luzeran eta fatxadatik ahalik eta gertuen ipinita, atari, saltoki edo garajeetarako bideak oztopatu gabe, eta galtzadara inoiz ere sartu gabe. Ilara sortzen duen jardueraren arduradunek behar den ordena zerbitzua edukiko dute inguruan dabiltzan gainerako lagunei trabarik ez egiteko eta ezustekorik ez eragiteko.

95. artikulua

1.754/1976 Dekretu bidez onartu zen Salgai Arriskutsuak Errepidez Garraiatzeko Estatuko Arautegiko 1-A, 1-B, 1-C eta 2 motetako salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten eta, aldi berean, Arautegi horretako 1 edo 2-A zenbakidun arrisku etiketak eramatera behartuta dauden ibilgailuek debekatuta daukate herri barruan ibiltzea.

Era berean, herritik kanpora ingurabide edo saihezbideak daudenean, ezinbestean erabiliko dituzte; herri barruko gainerako bideetan zamalanak egiteko edo ezinbestean baino ez dira ibiliko.

Aurreko atalean xedatutakoa ez da ezarriko zamarengatik, kopuru mugatuarengatik edo garraio motarengatik, ADR-an jasotako salbuespenen batekin bat datorren salgai arriskutsuen garraioa denean.

96. artikulua

Halako ibilgailuei herri barrura sartzen utziko zaie salbuespenez, Ordenantza honetan ezarritako neurriei buruzko ezaugarri teknikoak betetzen dituztenean eta hornidurarako edo ondo justifikatutako ezinbesteko arrazoiren batengatik sartu beharra dutenean.

97. artikulua

Debekatuta dago bide publikoetan edozein hondakin mota botatzea, baita papera, plastikoak, bilgarriak eta abar ere; eta debekatua dago, halaber, geldirik nahiz abian dauden ibilgailuetatik holakoak jaurtitzea.

98. artikulua

Debekatua dago bide publikoan ibilgailuak garbitzea eta txukuntzea.

99. artikulua

Zarata araudi orokorrak nahiz berariazko ordenantzak debekatzen dituen mailetara iristen den kutsadura akustikoa da.

Nolanahi ere, azeleratzean, balaztak neurrigabe eta arduragabe erabiltzean eta etengabe eta arrazoirik atea eta karrozeriak ireki eta ixtean hotsak sortzea saihestuko da, eta bereziki 22:00etatik 08:00etara bitartean.

Alkatearen baimen berezirik ezean debekatuta dago ibilgailuetan, oro har, megafonia erabiltzea.

Debekatuta dago herri barruan seinale akustikoak erabiltzea, harrapatzeko edo talka egiteko berehalako arriskua dagoenean izan ezik. Halakoetan seinale akustikoa ahalik eta laburrena izango da.

Debekatuta dago ibilgailuetan jarritako alarma mekanismoekin jendea gogaitzea. Halako dispositiboren bat martxan jarriko balitz ibilgailuaren jabeak itzaltzeaz arduratu beharko luke berehala.

Aparatu akustiko bereziak erabiltzeko baimena polizien eta larrialdietako ibilgailuek soilik izango dute; neurritz eta premiazko zerbitzu batean ari badira erabili ahal izango dituzte.

Arautegian finkatutako mugak gainditzen dituzten gas nahiz ke isuriak bota edo zarata egiten duten motorrak eta ziklomotorrak ibiltzea debekatuta dago; baita ke-hodi librearekin edo zarata-isilgailu eraginkorrik gabe ibiltzea ere.

IV. TITULUA

ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK

I. KAPITULUA

IBILGAILUAK IBILGETZEA

100. artikulua

Berangoko Udaltzaingoak ibilgailuak ibilgetzea erabaki ahal izango du ibilgailu horiek erabiltzeak gainerako ibilgailuentzat, pertsonentzat nahiz ondasunentzat nolabaiteko arriskua sor badezake. Eta, gainera, honako kasu hauetan ere bai:

- a) Gidatzen duen pertsonak administratiboki ibilgailu hori gidatzeko baimena ematen dion derrigorrezko gidabaimenik ez badauka.
- b) Hutsune teknikoak tarteko, ezinbesteko elementuak ez izateagatik edo altuera, zabalera, pisua, luzera zein zama nola jartzeko edo eusteko era desegokiak edo gehiegizkoak direlako galtzadan kalteak eragitean
- c) Gidariak arnasarekin botatako airean gidatzen ari den ibilgailuarentzat legez ezarrita dagoen alkohol tasa gainditu eta, gainera, bere ordeztatu duen inor ez dagoenean.
- d) Ibilgailua gidatzen duena eta ibilgailuan dauden ibilgailua gidatzeko baimena duten beste lagunak arnastutako airean duten alkohol maila zehazteko frogak egitera ukatzen direnean, eta alkoholdun edariak hartu dituztela nabaria denean.
- e) Ibilgailuan doazen lagun kopuruarengatik edo hauek jarrita dauden moduagatik nahiz garraiatzen diren gauzengatik gidariak mugitzeko duen aukera nahiz ikus-eremua nabarmen mugatu direnean.

- f) Trafikoko arau-hausteren bat salatu ondoren, salatuak ohiko bizilekua Espainiako lurretan duela frogatzen ez duenean eta isunaren behin behineko zenbatekoa ordaindu edo ordainketa bermatu ez duenean, kauziorik aurkezten ez bada.
- g) Ibilgailua Ibilgailuen Derrigorrezko Asegururik gabe dabilenean.
- h) Ibilgailua bide publikotik garabiaz baliatuz eramatea justifikatzen duen araren bat urratzen denean eta gidaria edo arduraduna udal honetan indarrean dagoen tarifaren arabera ibilgailua garabira lotzeagatik finkatuta dagoen tasa eskudirutan ordaintzera ukatzen denean. Horrelakoetan zirkulazioa oztopatu gabe eta seinaleek agindutakoa urratu gabe gertuen dagoen tokian ibilgetuko da ibilgailua.
- i) Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legearen arauak urratzearen ondorioz ibilgailua erabiltzeak zirkulaziorako, pertsonentzat nahiz ondasunentzat arrisku larria sor dezakeenean udaltzainek ibilgailua ibilgetu ahal izango dute. Neurri hori eragin duten arrazoiak desagertu orduko baliogabetuko da ibilgailua ibilgetzeko agindua. Ziklomotorra edo motozikleta homologatutako kaskorik gabe erabiltzea pertsonentzako arrisku larritzat hartuko da.

101. artikulua

Zirkulazioko Kodearen 292 eta 292 bis artikuluetan jasotako kasuetan Udaltzaingoak «zepoa» erabiliz ibilgetu ahal izango ditu gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak. Gidariak agintaritza eskudunari ibilgailua zirkulatzeko moduan jartzeko eskatuko dio, eta horretarako lehenengo ibilgetzeak udaleko zerga ordenantzaren arabera eragin dituen gastuak ordaindu beharko ditu, gasturik balego.

102. artikulua

Eragin zuten arrazoiak desagertu orduko baliogabetuko da ibilgetzea, neurriari eustea gomendatzen duen eskumeneko arrazoirik ez bada behintzat.

II. KAPITULUA

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ERAMATEA

103. artikulua

Udal agintaritzak edo udaltzainek ibilgailu bat bide publikotik kendu eta horretarako dagoen gordailura eramateko agindu dezakete zirkulaziorari nahaste handia eragiten badio edo oinezkoen nahiz ondasunen segurtasuna edo zerbitzu publikoren baten funtzionamendua arriskuan jartzen badu.

104. artikulua

Ibilgailua ez da gordailura eramango gidaria bertan egon eta, ibilgailua garabira lotu aurretik, egoera irregularra konpontzeko neurri egokiak hartzen baditu. Horretarako, agintaritzaren agenteek ibilgailuaren ondoan dagoen gidari, jabe edo arduradunari egoera irregular hori konpontzeko eskatuko diote eta inor ez badago edo jaramonik egiten ez badiete ibilgailua eraman egingo dute. Lan hau agenteak trafiko legeak urratzeagatik gidaria identifikatu eta salatu izana kontuan hartu gabe egin egingo da.

Kasu bietan derrigorrezkoa da ibilgailua eraman duen enpresak egindako zerbitzuari dagokion zenbatekoa ordaintzea.

105. artikulua

Ezin izango da ibilgailurik gordailura eraman barruan norbait badago. Ibilgailua eramateko agindua eman duen agenteak gidariari edo beste bidaiariei ibilgailutik irteteko agindu eta jaramonik egingo ez baliote, eta ordena publikoari kalte handiagorik ez eragitearren, ibilgailua beharrezko segurtasun neurriak hartuta garraiatuko litzateke, ibilgailua guztiz ibilgetura joango dela bermatuko duten neurriak, hain zuzen ere.

106. artikulua

Trafikoan nahasmen larria eragiten dutelako ibilgailua garabiarekin bide publikotik eramatea justifikatua dago honako kasuetan:

- a) Ibilgailua gutxienez hilabetez jarraian toki berean aparkatuta egon dela egiaztatzen denean, eta jarritako lehenengo salaketatik denbora hori joan dela froga daitekeenean.
- b) Ibilgailua gidaririk gabe bigarren ilaran aparkatuta dagoenean.
- c) Berangoko udalak baimendutako zenbakidun ibi-plakarekin seinaleztatuta dagoen eraikineko sarrera edo irteera oztopatzen duenean.
- d) Ibilgailua udal ordenantzan oso zirkulazio handikotzat jo den bidean debekatutako toki batean aparkatuta dagoenean.
- e) Ibilgailuak zamalanetarako espresuki seinalatuta dauden gunetan zamalanetarako jarritako eta seinalatutako orduetan aparkatuta daudenean.
- f) Ibilgailua garraiabide publikoentzat gordetako gunetan aparkatuta dagoenean, gune horiek behar bezala seinalatuta eta zedarrituta baldin badaude.
- g) Ibilgailua larrialdi eta segurtasun zerbitzuetarako espresuki gordeta dauden tokietan aparkatuta dagoenean, hala nola, anbulantzia, suhiltzaile eta polizientzat gordetako tokietan.
- h) Ikuskizun publikoetarako erabiltzen diren tokietako larrialdietarako ateen aurrean aparkatuta daudenean ikuskizunak ematen ari diren bitartean.
- i) Aparkatutako ibilgailuak dagokion seinaleak baimentzen duen bira egitea eragozten duenean.

- j) Ibilgailua aparkatu ezin daitekeen espaloi edo paseo baten gainean aparkatuta dagoenean.
- k) Seinalatutako oinezkoentzako pasabidearen gainean aparkatuta dagoenean.
- l) Ibilgailua linean nahiz alakan eta alboko kaleko zintarriaren lerrotik irtenda aparkatuta dagoelako ibilgailu ilara bati pasatzen uzten ez dionean edo oinezkoen zirkulazio librea eragozten duenean.
- m) Ibilgailua trafikoko seinaleak ikustea eragozten duen toki batean aparkatuta dagoenean eta seinale horiek betetzeak gainerako erabiltzaileentzat arrisku larria dakarrenean.
- n) Behar bezala seinalatutako eraikin ofizialetako segurtasun perimetroan aparkatuta dagoenean.
- o) Ibilgailua berariaz gordetako tokietan aparkatuta dagoenean, hots, obretarako, minusbaliatuentzat, udal zerbitzuentzat, kontsulatuentzat nahiz udal honek baimendutako beste edozeinentzat gordetako tokietan.
- p) Ibilgailuaren egoera haren ondotik pasatzen diren oinezkoentzat arriskutsua denean.
- q) Oinezkoentzako gune batean aparkatuta dagoenean, horretarako berariaz baimenduta ez badago.

107. artikulua

Ibilgailua eraman edo lekualdatu ahal izango da, baina jabearentzako inolako koste ekonomikorik gabe, honako kasuetan:

- a) Ibilgailua segizio, desfile, prozesio, kabalgada, kirol-froga edo behar bezala baimendutako jarduera garrantzitsuren baten ibilbidean behar bezala aparkatuta dagoenean eta titularrari ezin izan zaionean ibilgailua handik kentzeko jakinarazi.
- b) Bide publikoa konpondu edo garbitzeko beharrezkoa denean, eta ibilgailua bertan egoteak tokiaren segurtasunean edo osasungarritasunean eragin nabarmena badu.
- c) Behar bezala justifikatutako larrialdi baten ondorioz beharrezkoa denean.

108. artikulua

Garabiak udal gordailura eramandako ibilgailua berreskuratzeko, jabeak ibilgailua eraman zuen enpresaren faktura ordaindu beharko du aurretik; faktura dagokion lekualdaketa-erengatik eta ibilgailua han edukitze-erengatik da.

Ibilgailuak justifikatutako segurtasun arrazoiengatik lekualdatu direnen kasuak salbuesten dira, besteak beste, berreskuratu den auto lapurtua delako, jabea aurkitzerik izan ez delako, edo agintaritzak judizialak

109. artikulua

Garabiak ibilgailua eraman ez badu baina bai garabiari bitarteko mekanikoekin garabira “lotu”, ibilgailuaren bila joan den enpresak bere faktura ezarritako kopurua ordaindu beharko du gidariak. Ibilgailua «lotuta» dagoela esaten da, lekualdatzeko erabiltzen diren kako, polea zein bestelako gailuren batekin eutsi edo heldu bazaio eta lurretik altxatuta badago.

V TITULUA

ZEHAPEN PROZEDURA

110. artikulua

Ordenantza honetan jasotako arauak eta indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako gainerakoak urratzeagatik zigorrak jartzeko eskumena Udalbatzako Alkate-Lehendakariarena da. Ebazpenean ezin izango da izapideak egiterakoan zehaztu diren egitatez kanpokorik kontuan hartu.

111. artikulua

Egindako arau-hausteen erantzukizuna egitateen egileena izango da zuzenez; eta egilea nor den jakiten ez denetan ibilgailuaren jabeari jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamabost eguneko epean gidariaren edo erantzulearen datuak emateko eskatuko zaio; ibilgailuaren jabeari jakinaraziko zaio, halaber, horretarako bidezko ziorik izan gabe dagokion prozedurazko izapidea ez betetzea falta larri modura zigortuko dela.

Ordenantza honetan jasotako arauak hausteagatik zigortuak izan diren adin txikikoen guraso, tutore edo arduradunek beren ondasunekin erantzungo diote beren zaintzapean dituzten adin txikikoei ezar liezazkiekeen isunei, jurisdikzio eskudunak egitateen egilearen balizko erantzukizun penal edo zibila zein den zehaztu duen kontuan hartu gabe.

112. artikulua

Zehapen prozedurari arau-hausteak izan daitezkeen egitateen berri duen agintaritzak eskudunak ofizioz edo salaketan bidez emango dio hasiera.

Trafikoa zaintzeaz arduratu behar duten agintaritzako agenteek, beren zereginetan ari direnean Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legeko, Zirkulazioko Erreglamendu Orokorreko eta Ordenantza honetako arau-hausteak salatu egin beharko dituzte.

Edonork ere salatu ahal izango ditu, halaber, trafiko arauak hausten dituzten egintzak.

113. artikulua

Trafiko kontuengatik jarritako salaketetan honako hauek eman beharko dira: ibilgailuaren identifikazioa, salatutako pertsonaren nortasuna ezagutzen bada, egitatearen azalpena, lekua, eguna eta ordu, eta salaketa egin duenaren izen-abizenak, lanbidea eta helbidea. Salaketa jarri duena agintaritzaren agentea denean datu hauen orde z bere identifikazio zenbakia jarri ahal izango da.

Salaketa orria ahal izanez gero salaketa egin eta berehala emango zaio salatuari; salaketari dagokion espedienteari hasiera emango zaio horrela. Salatzaileak eta salatuak sinatuko dute espedienteak, nahiz salatuak ez dagoen horretara behartua eta espedienteak sinatzeak ez duen esan nahi jasotako alearekin ados dagoenik; ondorioz, 15 eguneko epea izango du bere burua defendatzeko egoki irizten diona argudiatzeko eta frogak proposak aurkezteko. Salaketetan bertan adierazi beharko diren bidezko arrazoiengatik geroago ere jakinarazi daiteke salaketa.

2. Orokorrean, salaketak unean bertan jakinaraziko zaizkie salatutakoei. Halakorik ezingo balitz egin, salaketa orrian horren arrazoiak adierazi beharko dira.

114. artikulua

Borondatezko salaketak ahoz egin ahalko zaizkie Udaltzainei eta idatziz alkateari zuzenduta.

Salaketa udaltzainen bati eragingo balitzaio, salaketaren orria udaltzainek berek beteko lukete eta aurreko artikuluan esandako datuez gain beste hauek ere jarriko dituzte: udaltzainak berak salatutako arau-haustea egiaztatu zuen ala ez eta salatzailearen izen-abizenak eta helbidea; salaketa orria dagokion udal organora bideratuko da hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera izapideak egiteko.

115. artikulua

1. Ordenantza honetan xedatutakoa hausteagatik abiarazten diren espedienteen izapidea udalean horien eskumena duen organoak egingo du. Salaketa jaso ondoren egitateak kalifikatu eta isuna zenbatekoa izango den erabakiko da, edo salaketa egin duen agenteak idatzitako kalifikazioa eta isuna baietsi egingo dira; ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaizkio hauek, salaketagileak salaketa egiteko unean zehaztu ez badizkio.
2. Interesatuak jakinarazpena jasotzen duenetik edo, salaketa unean bertan ematen bazaio, salaketa ematen zaionetik 15 eguneko epea izango du bere burua defendatzeko egoki irizten diona argudiatzeko eta frogak proposak aurkezteko; ohartaraziko zaio, halaber, alegazioak epe barruan egin ezean, prozeduraren hasiera ebazpen proposamen bihurtuko dela.

3. Salatua izan denak aurkeztutako alegazioak salaketa jarri duenari jakinaraziko zaizkio, argibide berririk ematen ez duten kasuetan izan ezik. Eta salaketa jarri duenari jakinaraziko zaio 15 eguneko epea duela salaketa berresteko. Alegazioak eta salaketa jarri duenaren txostena ikusi ondoren izapidegileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio alkatetzari.

Egitateak ikertzero eta balizko erantzukizunak zehaztera bideratutako izapideak burutu ondoren, eta beharrezkoa izanez gero froga epea irekitzea ere erabakita, izapidegileak ebazpen-proposamena aurkeztuko du eta interesatuei jakinaraziko zaie nahi dituzten argudioak eman eta egoki irizten dieten dokumentuak aurkez ditzaten 15 eguneko epean.

Izapidegileak aurkeztu diren frogak bidegabeak direnean soilik baztertu ahal izango ditu, eta horretarako motibodun ebazpena eman beharko du. Interesatuak proposatutako frogek sortzen dituzten gastuak interesatuak ordainduko ditu.

Aurkeztutako alegazioak salaketa jarri duenari jakinaraziko zaizkio, argibide berririk ematen ez duten kasuetan izan ezik. Eta salaketa jarri duenari jakinaraziko zaio 15 eguneko epea duela salaketa berresteko.

4. Espedientearen instrukzioa amaitu eta gero alkateak ebazpena emango du izapideak hasi zirenetik sei hilabeteko epean. Ebazpenean ezin izango dira izapideetan zehaztutakoak ez diren egitateak kontuan hartu.

Ebazpen horretan interesatuari jakinaraziko zaio administrazioarekiko auzietako epaitegira jo edo, bestela, alkatetzan aukerako berraztertze errekurtso bat egin dezakeela; jakinaraziko zaio, halaber, isunaren zenbatekoa premiamendu-bidetik kobratzeko izapideak abiaraziko direla.

5. Prozedura hasi eta sei hilabetera ebazpenik jakinarazi ez bada prozedura iraungi egingo da eta jarduerak artxibatu egingo dira bai edozein interesatuk horrela eskatuta nola ebazpena emateko eskuduntza duen organoak berak ofizioz erabakita, honako kasu hauetan izan ezik: prozedura interesatuei egok dakiekeen arrazoiren batengatik eten bada, edo otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluan aurreikusten den bezala geldiarazten bada, edo urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5 artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik eten bada.
6. Prozedura hasi zenetik sei hilabeteko epea agortu eta hogeita hamar egunera ebazpenik eman ez bada, prozedura ebazpenik gabe iraungiko da eta jarduerak artxibatu egingo dira.

116. artikulua

Agintaritzako agenteek jarritako salaketek salatutako egitateen froga modura balioko dute, ahalik eta froga elementurik gehien aurkeztu behar dela ahaztu gabe.

117. artikulua

Jakinazpenetarako ibilgailuaren gidariaren edo titularren helbidea interesatuek berriaz adierazi dutena izango da eta, bestela, hurrenez hurren, Gidarien eta Arau-Hausleen erregistroan eta Ibilgailuen erregistroan ageri dena.

Jakinazpenek lege eta dekretu hauek ezarritakoa beteko dute: Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen eta Bide Segurtasunaren gaietarako Zigor Prozeduraren Arautegia onesten duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua, urtarrilaren 30eko 116/1998 Errege Dekretuak, otsailaren 137/2000 Errege Dekretuak eta martxoaren 14ko 318/2003 Errege Dekretuak sartutako aldarazpenak, martxoaren 24ko 5/1997 Legeak eta abenduaren 19ko 19/2001 Legeak aldarazitako Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legearen artikuluen testua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

118. artikulua

Administrazioaren bidea agortzen duten ebazpenen kontra administrazioarekiko auzi bideko errekurtoa jarri ahal izango da.

119. artikulua

Arau-haustek zehatzeko ekintza hiru hilabetera iraungitzen da arau-haustek arinak direnean, sei hilabetera arau-haustek larriak direnean eta urte betera arau-haustek oso larriak direnean; epeak egitateak egin diren egunean hasita zenbatuko dira. Iraungipen epea eten egiten da administrazioak salatua jakinaren gainean dagoen edozein jarduera egiten duenen edo salatua nor den eta non bizi den jakiteko jarduerak egiten direnean, jarduera hauek sortu diren sailetik kanpora egiten direnean. Iraungipena jakinarazpenak berak ere eteten du. Iraungipen epeari berriz ekingo zaio salatuari ezin egotzi zaion arrazoiren batengatik prozedura hilabete batez baino gehiago geldituta badago.

Zehapena jartzen duen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik urte betera iraungiko dira Zehapenak.

Iraungipen hori etenda geratuko da, interesatua jakitun dela, zehapena betearazteko prozedura abiarazten denean; eta berriro ekingo zaio iraungipen epeari prozedura hilabete batez baino gehiago geldituta badago arau-hausleari ezin egotzi zaion arrazoiren batengatik.

120. artikulua

Zehapen larriak eta oso larriak Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan idatziko dira eta, aurrekarien ondorioetarako, ofizioz baliogabetuko dira erabat bete direnetik edo iraungi direnetik bi urte joan direnean.

121. artikulua

Ezin izango da Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenik betearazi, administrazioaren bidetik irmoak ez badira.

Prozesu penal bat ere baldin badago, administrazioaren jarduketak gelditu egingo dira erantzukizun penalari amaiera ematen dion ebazpen irmorik ez dagoen bitartean.

122. artikulua

1. Isunak Udaleko diru-bilketa sailean, posta bidezko igorpenez nahiz Udalak horretarako dituen diru-bilketako kontuetan dirua sartuta ordaindu ahal izango dira. Isunak jakinarazpena jaso denetik 30 egun baino lehen ordaintzen badira, udaltzainaren salaketa orrian jartzen duenari edo espedientearen izapidegileak egindako jakinarazpenak diotenari dagokion kopurua baino ehuneko 30 merkeago ordaindu ahal izango dira. Isuna aipatu den murrizketarekin aurretiaz ordaintzeak alegazioak egiteari uko egitea eta prozedura berariaz ebazpen bat eman gabe amaitzea dakar berekin, isuna jartzeaz gainera gida-baimena kentzea dagokion kasuetan izan ezik, eta dagozkion helegiteak jartzeko aukerari kalterik egin gabe. Alkatetzako ebazpena eman ondoren ordaindu beharreko kopurua nominala izango da.
2. Isunak ere posta bidezko igorpenez nahiz Udalak horretarako dituen diru-bilketako kontuetan dirua sartuta ordaindu beharko dira irmo diren egunetik hamabost eguneko epean.
3. Epe hori agortu eta isunik ordaindu ez bada, premiamendu-prozedura abiatuko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Arautegian aurreikusitako prozeduraren arabera.
4. 4. Agenteez ez dute inoiz ere jarritako isunik kobratuko; hala eta guztiz ere, arau-hausleak ohiko bizitokia Espainiako lurraldean duela frogatzen ez badu salaketa jarri duen agenteak isunaren behin-behineko zenbatekoa ezarriko du eta kopuru hau ordaintzen ez bada ibilgailua ibilgetu egingo du gero horretarako dauden udal egoitzetara eramateko.

Kontuan hartuko da lehenengo paragrafoan ehuneko 30eko murrizketari buruz esaten dena, eta ordainketa bera edo ordainketaren bermea zuzenbidean onartuta dagoen edozein bide erabiliz egin daiteke.

123. artikulua

Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onestutako Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legearen testu artikulatua aldarazten duen abenduaren 19ko 19/2001 Legean berariaz larri edo oso larri izendatu ez dituen Ordenantza honen kontrako arau-hausteak arinak izango dira.

124. artikulua

Arau-hauste arinak 90,00 eurora bitarteko isunekin zehatuko dira, arau-hauste larriak 91,00 eurotik 300,00 eurora bitarteko isunekin, eta arau-hauste oso larriak 301,00 eurotik 600,00 eurora bitarteko isunekin.

125. artikulua

Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusten diren arau-hausteei dagozkien isunen zenbatekoak Alkatetzak erabakiko ditu, bere eskumena denean.

126. artikulua

Ordenantza honetan araupetutako zehapen prozedurak, nolana ere, honako legeetan xedatutakoa bete beharko du: uztailaren 25eko 18/1989 Legea, Trafikoari eta Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko oinarrien gainekoa, besteak beste, martxoaren 24ko 5/1997 Legeak eta abenduaren 19ko 19/2001 Legeak aldarazitako Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Trafikoko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioko eta Bide Segurtasuneko gaietako Zehapen Prozeduraren Arautegia onesten duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua, eta urtarrilaren 30eko 116/1998 Errege Dekretuak sartutako aldarazpenak, martxoaren 14ko 318/2003 Errege Dekretua, Zehapen Ahalmenaz baliatzeko Prozeduraren Arautegia onesten duen abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretua; eta etorkizunean aplikatuko den araudia.

127. artikulua

Trafikoko Lurraldeko Agintaritzari gidabaimena aldi baterako indargabetzea ere ekar lezaketzen zehapen larri eta oso larrien berri emango zaio

Dagokion administrazioari ere ondoko hauen berri emango zaio: dagokion administrazioaren baimenik gabe gidatzea, matrikularik gabe nahiz Trafiko, Zirkulazio eta Motordun Ibilgailuei buruzko Legean jasotako baimenik gabe zirkulatzea, ibilgailuaren jabeak edo edukitzaileak ibilgailuaren eskualdatzea zegozkion epean eskatu gabe nahiz bide segurtasuna bermatzen duten baldintza teknikoan betetzen ez dituen

ibilgailu batean zirkulatzea, Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoari buruzko arauak nahiz gidarien azterketa egiten edo irakasten aritzen diren zentroen jarduera araupetzen duten arauak haustea eta bide segurtasunari zuzenean erasaten dioten industria jardueren erregimenari buruzko arauak haustea.

128. artikulua

Alkate-Lehendakariak Ordenantza honetan ezarritako isunen zenbatekoa Dekretu bidez eguneratu ahal izango du, aurretiaz ezarritako mugak aintzat hartuaz.

129. artikulua

Alkatearen zeregina izango da Ordenantza honen eranskinean berariaz tipifikatuta ez dauden arau hausteak arinak, larriak ala oso larriak diren zehaztea, 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen 65. artikulua dioenez. Alkatearena izango da, halaber, zirkulazio arauak hausteagatik zehapenak jartzeko eskumena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honen aurkako ordenantza, erreglamendu eta udal bando guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Aipatutako epea zenbatzen hasteko, Ordenantza honen testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean zein egunetan argitaratu den hartuko da kontuan.

ERANSKINA **ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENEN KOADROA**

Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
ARINA	Pertsona bakarrarentzat eraikia izan den ziklo batean pertsona bat baino gehiago joatea.	12.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	7 urte bitarteko adin txikiko bat homologatu gabeko eserleku osagarri batetan eramatea.	12.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Adin txikiko gidariak 7 urte edo gutxiagoko adin txikikoa	12.1 1428/03 ED		

	zikloan eramatea.			
ARINA	Motozikleta edo ziklomotore batean bere zirkulazio-baimenean ageri den bidaiari kopurua baino gehiago ibiltzea.	12.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	12 urte baino gehiagoko bidaiaria motozikletan edo ziklomotorean hankalatraba nahiz oinak alboetako oin-euskarrietan finkatu gabe joatea.	12.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bidaiaria motozikleta edo ziklomotorra gidatzen duenaren eta gidoinaren artean joatea.	12.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Baimena duen gidari adinez nagusiak 7 eta 12 urte bitarteko adin txikikoa motozikletan edo ziklomotorean hankalatraba nahiz oinak alboetako oin-euskarrietan finkatu gabe eramatea.	12.3 1428/03 ED	60	%30
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
ARINA	Baimena duen gidari adinez nagusiak 7 eta 12 urte bitarteko adin txikikoa motozikletan edo ziklomotorean behar bezala gidariaren atzeko eserlekua erabili gabe eramatea.	12.3 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Oinezkoentzako pasabidean gelditzea.	94.1b 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bizikletentzat gordeta dauden bideetan gelditzea.	94.1h 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Seinaleek minusbaliatuentzat soilik direla dioten tokietan gelditzeagatik.	94.1j 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Zirkulazio-baimena eduki arren ez aurkeztea..	61.1 339/90 EDL	60	%30
ARINA	Agintaritzaren agenteei zirkulazio-baimena, IATko txartela, zirkulazio-lizentzia edo ezaugarri teknikoan ziurtagiria ez aurkeztea (azken biak ziklomotorren kasuan).	59.3 339/90 EDL	60	%30
ARINA	Autobusentzat gordetako	160 1428/03 ED	60	%30

	erreietatik nahiz erreiserbatutako beste edozein erreietatik zirkulatzea.			
ARINA	Herriko kaleetan keak ateratzeko gailu akastunarekin ibiltzea.	7.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Gidari hasiberriaren seinalea jarri gabe ibilgailua gidatzea.	173 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Hots seinaleen erabilera okerra egitea.	110.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	IAT gaintitu izanaren ezaugarria agerian ez eramatea.	Anexo XXI 2822/98 ED	60	%30
ARINA	Ibilgailua bide publikoan abandonatzea.	71.a 339/90 EDL	60	%30
ARINA	Ibilgailua gelditzea trafikoa neurri batean oztopatuz.	94 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Hori baimentzen duten plaka edo seinalerik ez dagoen tokietan baterian aparkatzea.	92.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Baimendutako gehienezko pisua baino handiagoa dutelako herri barruan ibiltzea mugatua duten kamioiek herri barruan aparkatzea.	93 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Seinale bertikalek debekatzen duten lekuetan aparkatzea.	154 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bide-marrak seinaleztatutako eremu debekatuan aparkatzea.	171 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Zirkulazioa neurri batean oztopatuz aparkatzea.	91.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Arriskurik gabe oinezkoen tokietatik zirkulatzea.	121.5 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Arriskurik gabe espaloietatik zirkulatzea.	121.5 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Baimendutako toki eta orduetatik kanpora zamalanak egitea.	16 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Oinezkoak debekatutako tokitik edo moduan galtzada gurutzatzea.	124.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Oinezkoak udaltzainen aginduak ez betetzea.	122.4 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Ibilgailuen zirkulazioa, geldialdia nahiz	4.2 1428/03 ED	60	%30

	estazionamendua oztopatu edo arriskutsu bihurtu dezaketen edo zirkulatzeko, geldialdiak egiteko nahiz aparkatzeko baldintza egokiak aldaraz ditzaketen gauzak edo materialak bidean botatzea, utzi edo abandonatzea.			
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
ARINA	Oinezkoen pasabidean aparkatzea.	94.2e 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Oztopo edo arrisku bat bidetik ez kentzea.	5.1 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bideko oztopo edo arrisku bat era eraginkorrean ez seinaleztatzea.	5.3 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bidean zamalanak egitea bidetik kanpora egiteko aukera dagoenean.	16 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Geldialdirako eta estazionamendurako xedapenak bete gabe bidean zamalanak egitea.	16.a 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Udal agintarien xedapenak bete gabe bidean zamalanak egitea.	16.a 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Zamalanak ibilgailuak galtzadaren ertzetik hurbilen duen aldetik ez egitea.	16.b 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Zamalanak egiterakoan beharrezkoak ez diren hotsak edo enbarazua egitea.	16.c 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Zamalanak egiterakoan salgaiak galtzadan, bazterbidean edo oinezkoentzako eremuan uztea.	16.c 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Bizikletentzako gordetako bideetan aparkatzea.	94.2.A 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Gurpil-ohol, irristailu edo antzekoekin galtzadan ibiltzea.	121.4 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Edozein bide motatan animaliak zaintzarik gabe uztea.	127.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Seinaleztatuta dagoen ibi baten	94.2 1428/03 ED	60	%30

	aurrean aparkatzea.			
ARINA	Ibilgailua abian jartzea eragotziko duten arauzko neurriak hartu gabe gelditzea edo aparkatzea.	92.2 1428/03 ED	60	%30
ARINA	Minusbaliatuentzat soilik dela seinaleztatua dagoen tokian aparkatzea.	94.2D 1428/03 ED	60	%30
LARRIA	Herri barruan argi laburrak piztu gabe ibiltzea.	100.1 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Beharrezkoak ez direnean lainotako faroak piztuta ibiltzea.	106 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Bide publikoan zirkulazioa oztopatzen duten gauzak uztea.	4 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Istripuak edo matxurak eragindako oztopoa ez seinaleztatzea.	5 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Arrazoirik gabe beste ibilgailuak oztopatzeko moduko abiadura mantsoan ibiltzea.	49 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Zirkulatzerakoan zamaren zati bat galtzadara botatzea.	14 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Pneumatikoak egoera txarrean, marrazkirik gabe edo deformatuta daudela ibiltzea.	12.5 2822/98 ED	91	%30
LARRIA	Pisu, luzera, garaiera edo zabalera mugak gaindituta ibiltzea.	13 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Ikuspegi murriztua duten bihurgune edo malda-gainaldetan gelditzea.	65.4B 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Beste ibilgailuei biratzea eragotziz elkarguneetan nahiz elkarguneen inguruan gelditzea.	65.4B 339/90 EDL	91	%30
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
LARRIA	Trafikoa erabat eragotziz geldialdia egitea.	65.4B 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Zirkulazioarentzat arriskua edo oztopoa izanik, zamalanetarako gordetako toki eta orduan	91.2G 1428/03 ED	91	%30

	aparkatzea.			
LARRIA	Zirkulazioarentzat arriskua edo oztopoa izanik, larrialdi zerbitzuetarako gordetako tokian aparkatzea.	91.2J 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Zirkulazioarentzat arriskua edo oztopoa izanik, bigaren ilaran aparkatzea eta ibilgailua gidaririk gabe uztea.	91.2H 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Zirkulazioarentzat arriskua edo oztopoa izanik, trafikoa bideratzeko irlatxo edo beste elementu baten gainean aparkatzea.	91.2E 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Ikuspen mugatuko tokian aparkatzea.	94.2a 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Garraio publikoak soilik erabiltzeko gordeta dagoen geltokian aparkatzea.	94.2 ^a 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Seinaleztatua eta zedarritua dagoen garraio publikoko geltokian aparkatzea.	91.2i 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Oinezkoentzat arriskua edo oztopoa izanik, espaloian edo oinezkoentzako gunean aparkatzea.	91.2M 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Eraikin bateko sarreraren parean pertsonen sarrera-irteerak larri oztopatuz aparkatzea.	91.2c 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Agenteen zaintza saihestera bideratutako mekanismoak jartzea edo gailuak eramatea, agenteen zaintza saihesteko ibilgailua prestatzea nahiz radarrak antzemateko gailuak erabiltzea.	18.3 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Bidera edo ingurura suteak, zirkulazio istripuak nahiz naturan kalteak eragin ditzaketan gauzak botatzea.	65.4 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Ibilgailua abian jartzeko edo galtzada uzteko beharrezko arretarik ez jartzea.	72 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Ibilgailu bateko gidariak	146.1 1428/03 ED	91	%30

	semaforo bateko aldizkakoa ez den argi gorria ez errespetatzea.			
LARRIA	Ibilgailu bateko leku kopurua, gidariarena kontuan hartu gabe, %50 baino gutxiagoan gainditzea.	9 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Gidariari behar bezala ikusten uzten ez dioten bidaiariak edo gauzak jartzea.	18.1 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Baimendu gabeko gas isurpenak gainditzea.	7 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Baimendu gabeko zarata mailak gainditzea.	7 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Beharrezko arreta jarri gabe salgaiak garraiatzea.	14 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Abian dagoen erreia edo alaka-erpina etetea.	91.2M 1428/03 ED	91	%30
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
LARRIA	Trafiko marka edo seinaleak baimenik gabe jarri, aldatu edo kentzea.	142.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Biribilguneak martxaren noranzkoan eskuinetara uztea.	43.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Galtzadaren erdian aparkatzea.	65.4B 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Minusbaliatuek soilik erabiltzeko dela seinaleztatutako tokian aparkatzea.	94.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Lehentasuna duenari ez pasatzen uztea.	57.1 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Utzi pasatzen seinalea ez errespetatzea.	151.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Derrigorrezko noranzkoaren seinalea ez errespetatzea.	155 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Okerreko aurreratzea egitea.	82 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Debekatutako noranzkoa aldatzea edo biraketa egitea nahiz noranzkoa aldatzea edo biraketa beharrezko arretarik gabe egitea.	79 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	STOP seinalea ez errespetatzea.	151.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Zabarkeriaz gidatzea.	3 1428/03 ED	91	%30

LARRIA	Bigarren ilaran aparkatzea, gidaria ibilgailuan egon gabe.	65.4B 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Oinezkoentzako tokietatik arriskua sortuz zabarkeriaz gidatzea.	3.1 1428/03 ED	100	%30
LARRIA	Espaloietatik arriskua sortuz zabarkeriaz gidatzea.	3.1 1428/03 ED	100	%30
LARRIA	Zirkulazioa erabat oztopatuz aparkatzea.	65.4B 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Ibilgailu bateko gidariak arrisku egoera sortuz semaforo bateko aldizkakoa ez den argi gorria ez errespetatzea.	146.1 1428/03 ED	100	%30
LARRIA	Arauzko baldintzak bete gabe ziklomotorean nahiz motozikletan 7 eta 12 urte bitarteko adin txikikoa eramatea..	12.2 1428/03 ED	100	%30
LARRIA	Segurtasun-uhalik gabe zirkulatzea.	65.4H 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Larrialdietarako eta segurtasunerako gordetako tokietan aparkatzea.	91.2j 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Matrikula plaka duten ibilgailuak matrikula plakarik gabe edo matrikula plaka aldatuarekin ibiltzea (baita ziklomotorrak ere).	62.1 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Oinezkoentzako pasaguneetan gelditzea.	65.4B 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Matrikuladun motozikleta, automobil nahiz ibilgailu berezia ibilgailuen azterketa teknikora garaiz ez eramatea.	61.3 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Matrikuladun kamioi, atoi, erdi-atoi nahiz furgoneta ibilgailuen azterketa teknikora garaiz ez eramatea.	61.3 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Matrikuladun autobusa ibilgailuen azterketa teknikora garaiz ez eramatea.	61.3 339/90 EDL	150	%30
LARRIA	Ke-hodi librearekin nahiz zarata-isilgailu ezegoki edo hondatuarekin ibiltzea.	7.2 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Beste ibilgailu batzuetako	7.2 1428/03 ED	91	%30

	gidariei ikuspegia oztopatu diezaieketen nahiz kaltegarriak izan daitezkeen keak botatzen dituzten ibilgailu motordunak ibiltzea.			
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
LARRIA	Ikuspegi mugatuko nahiz murriztuko egoeretan argirik gabe edo bidean dabilzan besteak itsutzen zirkulatzea.	65.4 339/90 EDL	100	%30
LARRIA	Ziklomotorrak bere erabiltzaileentzat nahiz bideko beste erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen ertz irtenak izatea.	61.1 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	12 urte bitarteko adin txikikoak aurreko aulkian homologatutako gailurik gabe eramanez ibiltzea.	65.4H 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	3 urte bitarteko adin txikikoa atzeko eserlekuan homologatu gabeko euskarririk gabe.	65.4H 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Segurtasun uhalak ez jarrita eramatea.	65.4H 339/90 EDL	100	%30
CRAVE	Motozikletan, sidekarrarekin nahiz gabe, 3 gurpildun ibilgailuetan eta ziklomotorretan bidaiariak babeserako kaskorik gabe joatea..	65.4H 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Homologatutako nahiz zertifikatutako kaskorik ez erabiltzea (bizikletek barne)..	65.4H 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Gidariak ikuspen handiko jaka islatzailea ez erabiltzea.	65.4H 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Eskuak libre izateko gailurik gabe eskuko telefonoa erabiliz gidatzea.	65.4F 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Belarrietako entzungailuak jarrita nahiz soinu aparatuak oso ozen erabiliz gidatzea.	65.4F 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Horretarako arrazoirik gabe atzeraka gidatzea.	65.4 A 339/90 EDL	91	%30

LARRIA	Motozikletak argi laburrak piztu gabe ibiltzea.	104 1428/03 ED	91	%30
LARRIA	Zirkulazio-istripu bateko parte direnek agenteei beren nortasunaren berri ez ematea nahiz ez laguntzea.	65.4J 339/90 EDL	91	%30
LARRIA	Udaltzainen seinale nahiz aginduak ez betetzea.	65.4J 339/90 EDL	91	%30
OSO LARRIA	Lurreko garraioari buruzko legediak baimendutako gidatzeko denborak %50ean baino gehiagoan gainditzea nahiz behartutako atsedenaldiak %50ean baino gutxiagoan murriztea.	120 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Gidariarena zenbatu gabe baimendutakoak baino %50 gehiago joatea ibilgailu batean.	9 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Abiadura muga %50 eta %60 bitartean gaindituz gidatzea, gehienezko abiadura 30 km/h-an edo gehiagoan gainditzen bada.	50 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Abiadura muga %60 eta %75 bitartean gaindituz gidatzea, gehienezko abiadura 30 km/h-an edo gehiagoan gainditzen bada.	50 1428/03 ED	420	EZ DU
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
OSO LARRIA	Abiadura muga %75 eta %100 bitartean gaindituz gidatzea, gehienezko abiadura 30 km/h-an edo gehiagoan gainditzen bada.	50 1428/03 ED	510	EZ DU
OSO LARRIA	Abiadura muga %100 gaindituz gidatzea, gehienezko abiadura 30 km/h-an edo gehiagoan gainditzen bada.	50 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Ezarrita dagoen noranzkoaren aurkakoan ibiltzea.	152 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Gidatze nabariki ausartegia egitea.	3.1 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Ibilgailuen artean baimenduta ez dauden lehiaketak eta	55.2 1428/03 ED	600	EZ DU

	lasterketak egitea.			
OSO LARRIA	Araututako baimenik gabe kirol frogak, ibilaldi zikloturistak nahiz bestelako gertakariak ospatzea.	55.1 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Araututako baimenak ezarritako baldintzak bete gabe kirol frogak, ibilaldi zikloturistak nahiz bestelako gertakariak ospatzea (adierazi zein baldintza izan den bete ez dena).	55.1 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Ibilgailuaren jabeak horrela eskatu zaionean gidaria zein den ez esatea.	65.5I 339/90 EDL	301	EZ DU
OSO LARRIA	Baja emana duen ibilgailu batekin ibiltzea.	65.5K 339/90 EDL	301	EZ DU
OSO LARRIA	Dagokion administrazioaren baimenik gabe ibilgailu bat gidatzea.	65.5J 339/90 EDL	301	EZ DU
OSO LARRIA	Baimen osagarririk izan gabe daraman karga banaezinak araututako mugak gainditzen dituen ibilgailuan ibiltzea.	13.2 1428/03 ED	301	EZ DU
OSO LARRIA	Odolean litroko 0,5 alkohol gramo edo arnastutako airean litroko 0,25 alkohol miligramo baino gehiago denean gidatzea.	20.1 1428/03 ED	Ikusi baremoa	EZ DU
OSO LARRIA	Odolean litroko 0,5 alkohol gramo edo arnastutako airean litroko 0,25 alkohol miligramo baino gehiago denean bizikletan ibiltzea.	20.1 1428/03 ED	Ikusi baremoa	EZ DU
OSO LARRIA	Odolean litroko 0,3 alkohol gramo edo arnastutako airean litroko 0,15 alkohol miligramo baino gehiago denean honako ibilgailu hauek gidatzea: -Baimendutako Gehienezko Pisua 3.500 kg-koa baino gehiagokoa duten salgaiak garraiatzeko ibilgailuak. -Bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak, 9 lagunentzako baino gehiagorentzako tokia	20.1 1428/03 ED	Ikusi baremoa	EZ DU

	<p>duzenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Zerbitzu publikoko ibilgailuak. -Eskola-umeak garraiatzeko nahiz adin txikikoak garraiatzeko ibilgailuak. -Gai arriskutsuak garraiatzeko ibilgailuak. -Larrialdi zerbitzuetarako ibilgailuak. -Garraio bereziak egiteko ibilgailuak. 			
Kalifik..	Azalpena	Urratutako agindua	Zenbatekoa	Hobaria.
OSO LARRIA	2 urte baino gutxiago dituen gida-baimenarekin odolean litroko 0,3 alkohol gramo edo arnastutako airean litroko 0,15 alkohol miligramo baino gehiago denean gidatzea.	20.1 1428/03 ED	Ikusi baremoa	EZ DU
OSO LARRIA	Gidaria edo bidea erabiltzen duena alkohola neurtzeko frogak egitera ukatzea zuzenean istripu batean parte hartu duela uste denean.	21.1 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Alkoholaren eraginpean izateko zantzu nabariak automobil nahiz bizikleta bateko gidaria alkohola neurtzeko frogak egitera.	21.2 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Zirkulazio araudi nagusiaren aurkako arau-hausteren bat egiteagatik salatutako ibilgailu nahiz bizikleta bateko gidaria alkohola neurtzeko frogak egitera ukatzea.	21.3 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Prebentzio kontroletan agintaritzak nahiz agintaritzaren agenteek hala eskatuta ibilgailu nahiz bizikleta bateko gidaria alkohola neurtzeko frogak egitera ukatzea.	21.4 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Sorgogarriak, psikotropikoak, estimulatzaileak nahiz	27.1 1428/03 ED	600	EZ DU

	arriskurik gabe gidatzeko baldintza fisiko egokia aldatzen duten bestelako antzeko substantziak hartuta gidatzea.			
OSO LARRIA	Gidaria edo bidea erabiltzen duena sorgogarririk, psikotropikoak, estimulatzaileak nahiz antzeko substantziak neurtzeko frogak egitera ukatzea zuzenean istripu baten eragile izan dela uste denean.	28.1 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Gidaria edo bidea erabiltzen duena sorgogarririk, psikotropikoak, estimulatzaileak nahiz antzeko substantziak neurtzeko frogak egitera ukatzea horrelakoen eraginpean gidatzearen zantzu nabariak daudenean.	28.1 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Gidaria edo bidea erabiltzen duena sorgogarririk, psikotropikoak, estimulatzaileak nahiz antzeko substantziak neurtzeko frogak egitera ukatzea araudi honetako arauen bat hautsi delako salaketa jarri zaionean.	28.1 1428/03 ED	600	EZ DU
OSO LARRIA	Prebentzio kontroletan agintaritzak nahiz agintaritzaren agenteek hala eskatuta ibilgailu nahiz bizikleta bateko gidaria sorgogarririk, psikotropikoak, estimulatzaileak nahiz antzeko substantziak neurtzeko frogak egitera ukatzea.	28.1 1428/03 ED	600	EZ DU

ISUNAK, ALKOHOLEMIA-TASAREN ARABERA

Gidariak, orokorrean	Honakoak gidatzen dituztenak: -BGM>3500kg- kamioiak -Bidaiari kopurua >9	Isuna
----------------------	--	-------

	-Bidaiarien Z.P. -Adin txikikoen eta eskola- garraioa -Gai arriskutsuak -Larrialdietako zerbitzuak -Garraio bereziak -Gidari hasiberriak	
0,25 < 0,40	> 0,15 < 0,25	310
0,40 < 0,50	> 0,25 < 0,40	360
0,50 < 0,60	> 0,40 < 0,50	450
0,60 < 1,00	> 0,50 < 0,60	480
> 1,00	> 0,60	600

ANUNCIO

Habiéndose publicado en el “Boletín Oficial de Bizkaia” nº 151, de 9 de agosto de 2006, el acuerdo de aprobación inicial de la “Ordenanza Municipal Reguladora del Tráfico, Circulación, Usos y Seguridad en las vías públicas de carácter urbano” y una vez finalizado el plazo de exposición al público establecido en el artículo 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, modificada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del gobierno local, sin que se hayan presentado alegaciones, en cumplimiento de lo aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 27 de julio de 2006 se declara definitivamente aprobada la citada Ordenanza y se procede a la publicación de su texto íntegro.

En Berango, a 6 de octubre de 2006. La Alcaldesa, Miren Dobaran Urrutia.

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL TRÁFICO, CIRCULACIÓN, USOS Y SEGURIDAD EN LAS VÍAS PÚBLICAS DE CARÁCTER URBANO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Berango, dentro del marco de su competencia normativa y conforme señala el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, reformado por la Ley 19/2001, de 19 de diciembre, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial en su artículo 7, recoge entre las competencias de los municipios, la de ordenar y el controlar el tráfico, entendido éste en un sentido amplio, en las vías urbanas de su titularidad, así como su vigilancia por medio de Agentes propios, la denuncia de las infracciones que se cometan en dichas vías y la sanción de las mismas cuando no esté expresamente atribuida a otra Administración, pretende desarrollar las mencionadas competencias a través de lo dispuesto en la presente Ordenanza Municipal.

Tal y como se recoge en el Título I de esta Ordenanza Municipal, la misma tiene como objetivo la regulación del tráfico, circulación, seguridad y usos de las vías públicas urbanas, de aquéllas que sean de uso común o que, utilizadas por un numero indeterminado de personas, discurran por el término municipal de Berango.

Por su parte el Título II hace referencia a la ordenación del tráfico y a la circulación, recogiendo los principios generales, así como las normas de circulación de vehículos, peatones y animales. Dentro de este título, merece especial mención la ordenación de las áreas peatonales, considerados como espacios físicos que mejoran la movilidad en el municipio y que intentan primar a la persona sobre el vehículo, tratando de reducir los niveles de contaminación, fomentando el uso del transporte público y buscando crear espacios integrables en el medio natural accesibles a la ciudadanía, todo

ello circunscrito dentro del interés y la preocupación por el desarrollo sostenible del municipio y la preservación de su medio natural.

Igualmente, también se regulan dentro de este mismo título, la colocación de obstáculos en la vía pública, la señalización, la realización de obras que afecten al tráfico, el régimen de paradas y estacionamientos.

El Título III regula los usos de las vías públicas y en dicho título se recogen el régimen de carga y descarga, el transporte de personas y bienes y los usos prohibidos. Por su parte el Título IV desarrolla las medidas cautelares, esto es, la inmovilización y la retirada de vehículos cuando existan causas graves de perturbación del tráfico, y por ello resulta justificada su retirada con grúa de la vía pública.

El Título V, a su vez, recoge y ordena el procedimiento sancionador aplicable, con expresión de la competencia para sancionar, responsabilidad, requisitos de las denuncias, instrucción de expedientes, notificaciones sanciones y su calificación, recursos, características de las infracciones y el abono de multas, entre otros aspectos.

Como Anexo final se recoge el cuadro de infracciones y sanciones, con expresión de la infracción cometida, la calificación de la misma, el precepto legal infringido y la cuantía de la multa aplicable.

TITULO I

PRELIMINARES

Artículo 1

Se dicta la presente Ordenanza en virtud de la competencia atribuida a los municipios en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en su artículo 25, apartados b) y II) RDL 781/1986, de 18 de abril, por la que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, así como por la ineludible necesidad de una adaptación a la situación actual del tráfico y usos de las vías del término municipal derivado de la aplicación de la Ley 18/1989, de 25 de julio, de Bases sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, la Ley 19/2001, de 19 de diciembre, de reforma del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, aprobada por Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, y Real Decreto 1.428/2003, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial.

CAPITULO I

OBJETO

Artículo 2

El objeto de la presente Ordenanza es la regulación del tráfico, circulación, seguridad y usos de las vías públicas urbanas, de aquellas que sean de uso común o que, utilizadas por un numero indeterminado de personas, discurran por el término municipal de Berango.

CAPITULO II

AMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 3

Los preceptos contenidos en esta Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal de Berango, y afectarán:

7. A las carreteras convencionales, vías rápidas, zonas de parada o estacionamiento de cualquier clase de vehículos, plazas, calles o vías urbanas, caminos de dominio público y, en general, a todas las vías de uso común, públicas o privadas. No serán aplicables los preceptos mencionados en los caminos, terrenos, garajes, cocheras u otros locales de similar naturaleza que no sean de uso público y se destinen al uso exclusivo de propietarios y propietarias o sus dependientes.
8. A los usuarios y usuarias de las vías comprendidas en el primer párrafo, sean conductores y conductoras, titulares, propietarios y propietarias, ocupantes de vehículos o peatones, tanto si circulan individualmente como en grupo.
9. A todas las personas físicas o jurídicas que, sin estar comprendidas en el párrafo anterior, resulten afectadas por dichos preceptos.
10. A contratistas de obras y entidades o particulares que realicen obras que afecten a la libre circulación en la vía pública, la restrinjan o supriman.
11. A los vehículos de cualquier clase que se encuentren incorporados en las vías relacionadas en el primer párrafo, estén aparcados o en movimiento.
12. A los animales sueltos o en rebaño.

TITULO II

ORDENACIÓN DEL TRÁFICO Y CIRCULACIÓN

CAPITULO I

COMPETENCIA MUNICIPAL

Artículo 4

La Ley sobre Tráfico Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial atribuye a los municipios las siguientes competencias:

